


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



Organización  
de las Naciones Unidas  
para la Educación,  
la Ciencia y la Cultura

Hezkuntza,  
Zientzia eta Kulturarako  
Nazio Batuen Erakundea



Munduko Hizkuntza Ondarearen  
UNESCO Katedra

Cátedra UNESCO  
de Patrimonio Lingüístico Mundial

UNESCO Chair  
on World Language Heritage

[ 2018 urteko

JARDUERA- MEMORIA ]

# AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. 2018 Urteko jardueren laburpena
3. Jarduerak
  - 3.1. Proiektuak
  - 3.2. Formakuntza eta Zabalkundea
    - 3.2.1. Emandako ikastaroak
    - 3.2.2. Katedrak antolatutako ekitaldiak
    - 3.2.3. Katedrako kideen parte hartzea beste ekitaldi batzuetan
  - 3.3. Katedraren presentzia hedabideetan
4. Argitalpenak

# 1. SARRERA

---

2006ko abenduan sinatu zen UNESCO eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) arteko hitzarmena Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra sortzeko.

2007ko otsailean, UPV/EHUko errektoreak Itziar Idiazabal Gorrotxategi, UPV/EHUko Euskal Filologiako Katedraduna, izendatu zuen Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedraren zuzendari.

2007ko urrian Katedra UPV/EHUko Zubiria Etxean kokatzen da (Agirre Lehendakariaren Etorbidea 81, E-48015 Bilbo).

UNESCO Etxearen diru ekarpenari esker, Katedraren jarduerak 2007-2008 ikasturtean hasten dira. Harrez geroztik Katedrak dibulgazio, formakuntza, ikerketa eta sentsibilizazio ekimenak burutzen ditu erakunde ezberdinen laguntzari esker.

Katedra sortu zenetik Itziar Idiazabal arduratu da bere koordinazioaz. 2018ko irailean erretiroa hartu duenez, Ines Garcia-Azkoaga izendatu dute Katedraren koordinatzaile berri. Itziar Idiazabalek, UPV/EHUko Ohoreko Kolaboratzaile izendaturik, Katedraren Batzorde Tekniko Iraunkorreko kide izaten jarraituko du.

Katedra, gaur egun, **Batzorde Tekniko Iraunkorrak** eta **Aholku Batzordeak** osatzen dute.

## 2018ko Batzorde Tekniko Iraunkorra

- Itziar Idiazabal (UPV/EHU), Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saileko Katedraduna.
- Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra), Euskal Filologian Lizentziatua eta hizkuntza aniztasunean aditua.
- Andoni Barreña (Salamancako Unibertsitatea), Euskal Filologian Doktorea eta hizkuntza aniztasunean aditua.
- Estibaliz Amorrortu (Deustuko Unibertsitatea), Hizkuntzalaritzan Doktorea eta Euskal Filologiako irakaslea.
- Margareta Almgren, Hizkuntzalaritzan Doktorea eta UPV/EHUko HIJE taldeko ikerlaria.
- Ines Garcia Azkoaga (UPV/EHU), Euskal Filologian Doktorea eta hizkuntza irakaskuntzan aditua.

- Leire Diaz de Gereñu Lasaga (UPV/EHU), Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketetan Doktorea eta hizkuntzen didaktikan aditua.
- Mikel Mendizabal (Garabide Elkartea), hizkuntza eta biologia aniztasunean ikertzailea.
- Ane Ortega (Begoñako Andra Mari Irakasle Eskola), Linguistikan Doktorea eta hizkuntzen didaktikan aditua.
- Ibon Manterola (UPV/EHU), Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketetan Doktorea eta hizkuntzen jabeakuntzan eta hizkuntzen didaktikan aditua.
- Beñat Garaio (UPV/EHU), hizkuntzalaritza eta soziolinguistikan ikerlaria.
- Jone Goirigolzarri (Deustuko Unibertsitatea), Soziolinguistikan doktorea, soziolinguistika irakaslea eta soziolinguistika eta hizkuntzen didaktikan aditua.
- Arkaitz Zarraga (Basauriko Euskaltegia), Euskal Filologian lizentziatua eta euskararen didaktikan aditua.
- Manel Pérez-Caurel (UPV/EHU), Hizkuntzalaritza lizentziatua eta hizkuntza gutxituetan eta hizkuntza aniztasunean aditua.
- Nora Etxaniz (UPV/EHU), Zuzenbidean Lizentziatua eta ikertzailea giza eskubideetan, bereziki hizkuntza eskubideak.
- Maite Garcia-Ruiz (UPV/EHU), euskal filologiako doktoregaia eta soziolinguistikan ikerlaria.

#### Aholku Batzordea

- Xabier Aierdi (UPV/EHU), Soziologia Katedraduna.
- Maria Jose Azurmendi (UPV/EHU), Soziolinguistika Katedraduna.
- Maitena Etxebarria (UPV/EHU), Hizkuntzalaritza Orokorreko Katedraduna.
- Patxi Goenaga (UPV/EHU), Euskal Filologia Katedraduna.
- Guillermo Dorronsoro, UNESCO Etxearen Lehendakaria.
- Arantza Acha, UNESCO Etxearen Zuzendaria.
- Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra), Euskal Filologian Lizentziatua eta hizkuntza aniztasunean aditua.
- Estibaliz Amorrortu (Deustuko Unibertsitatea), Hizkuntzalaritzan Doktorea eta Euskal Filologiako irakaslea.
- Ane Ortega (Begoñako Andra Mari Irakasle Eskola), Linguistikan Doktorea eta hizkuntzen didaktikan aditua.

## 2. 2018 URTEKO JARDUEREN LABURPENA

---

Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrak honako jarduerak burutu ditu 2018 urtean zehar:

- Hizkuntza gutxituen komunitateekin lankidetzaren alde batetik euren jatorrizko hizkuntzen normalizazio prozesuetan aholkularitza lanak egiten, eta bestetik irakaslearen formakuntzan laguntzen. Katedrak ekarpen garrantzitsua jasotzen du Eusko Jaurlaritzatik (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza), bereziki Kolonbiako hizkuntza komunitateekin lan egiteko. Aldi berean, katedrak hizkuntza lankidetzaren eremuan hausnarketaren eta teorizazioaren ikuspegitik lanean dihardu, euskal kooperazioak edozein eremutan hizkuntza irizpidea kontuan har dezan.
- Katedrak lidergoa hartu du Euskal Herrian 2030 Agendan hizkuntza aniztasuna txertatzeari dagokionez. EASO Politeknikoarekin batera “17+1” deituriko proiektua garatu da, eta hizkuntzen presentzia eza salatu nahi dugu Nazio Batuetako 17 Garapen Iraunkorrerako Helburuen aipatu agendan. Helburu horrekin, 2018 urtean ere hainbat ekimen bideratu da.
- *Linguistic Diversity, Minoritized Languages and Sustainable Development* izenburuarekin, sarean argitaratuko den liburu bat jarri da martxan, eta nazioarteko 16 adituren ekarpenak bilduko ditu.
- Ezagutzaren dibulgazioaren eremuan, hainbat jardunaldi antolatu dira eta beste erakunde batzuek antolatutako kongresu eta ikastaroetan parte hartu dugu, beti ere hizkuntza aniztasuna eta iraunkortasunaren aldeko sentsibilizazioa eta irakaskuntza eleanitzera prestakuntza bultzatuz.
- Ahalegin berezia egin da katedraren presentzia bultzatzeko hedabideetan, sare sozialetan eta argitalpen zientifiko espezializatuetan.
- Munduko eta bertako hizkuntza aniztasunari buruzko ikerketak burutu dira, aniztasun hori sustatu edo ahultzen duten baldintzei buruzkoak barne. Elebi/eleaniztasuna, hezkuntza programa elebidun eta eleanitzak eta hiztun berrien jarrerak eta motibazioak oso garrantzitsuak dira Katedrarentzan, bai ikerketa programetan eta baita lankidetzaren proiektuetan ere.

### 3. JARDUERAK

---

#### 3.1. Proiektuak

i. Kolonbiako nasa-yuwe hizkuntzaren indarberritzea: baliabide didaktikoak eta aholkularitza helduek hizkuntza ikasteko eta alfabetatzeko, hezkuntza elebiduna bultzatzeko, eta irakasleen formakuntzarako.

Proiektuak momentu honetan bi helburu dituela esan dezakegu: alde batetik hizkuntza politikak zehazten laguntzea eta bertan hizkuntza arloan dauden agintari, talde eta erakundeekin hizkuntza plangintzari dagokionez aholkularitza lanak egitea. Bestetik, irakasleen formakuntza bultzatu eta eskola materialak sortzen jarraitzea.

Aurten, Colombiako Cauca diharduen CECIDIC erakundearen eskariz, Katedraren batzorde teknikoko kide diren Mikel Mendizabal, Ane Ortega eta Akaitz Zarragaren partaidetza izan da “Diplomatura en estrategias de revitalización de la lengua aplicadas a la comunidad Nasa” ikastaroan 2018ko uda garaian. CECIDIC eta Garabide elkarteak dira diplomatura honen antolatzaile nagusiak, eta aurten lehenengo aldiz Cauca eskualden egin da 10 astetan zehar. 160 formazio orduko ikastaro honetan bertako 80 ekintzailek hartu dute parte, denak nasa-yuwe hizkuntzaren biziberritzean lan egiten dutenak.

Ekimen hau Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuodetzari esker eta Elorrioko eta Berrizko udalen laguntzari esker bideratu ahal izan da.

Aurten baita ere, eta Garabidek Mondragon Unibertsitatean antolatzen duen Aditu ikastaroa 2018 ekimenean Katedraren partaidetza handia azpimarratu nahi dugu. Ikastaro honetan parte hartzen duten 12 hizkuntzetako aktibistekin irakasle eta bidegile lanetan parte hartu dute Katedrako hainbat kidek, Mendizabal, Idiazabal, Uranga, Garaio eta Ortega, besteak beste.

#### ii. Erakusketa: 17 + 1 Helburu Mundua Eraldatzeko

2015eko irailean munduko liderrak Nazio Batuetako Batzar Nagusian bilduta Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda onartu zuten. Dokumentu horren garrantziak ez du aurrekaririk. Nazio Batuen Gutunaren printzipioetan oinarrituta, bakea, elkar-

ulertzea eta nazioarteko lankidetzaren ardatz izanik, eraldatzaile eta ausarta den ekintza plan bat da, pertsonengan, planetan, oparotasunean, bakean eta itunetan zentratuta dagoena. Halere, 2030 Agendaren 17 helburu horietan ez da berariaz aitortzen hizkuntza eta kultura aniztasuna babesteak garapenean duen garrantzia. Euskal Herrian hizkuntzekin, eta bereziki hizkuntza gutxiagotuekin daukagun lotura kontuan izanda, hutsune hori betetzeko ardura hartu behar dugula uste dugu. Helburu horrekin 2017an osatu zen **“17 + 1 Helburu Mundua Eraldatzeko”** erakusketa agertoki ezberdinetan aurkeztu dugu 2018 urtean: Azkue Fundazioaren Euskararen Etxean (2018ko otsailaren 21eko ekitaldiaren inguruan), Elorrioko Kultur Etxean, Leioako Ondiztorre kultur aretoan eta Berrizko Kultur Etxean Euskararen Egunarekin bat eginik, besteak beste.

### ***iii. Linguistic Diversity, Minoritized Languages and Sustainable Development***

Sarean argitaratuko den *“Linguistic Diversity, Minoritized Languages and Sustainable Development”* liburua jarri da martxan, eta mundu osoko ikerlariei parte hartzeko deialdia zabaldu zaie. Azkue Fundazioarekin batera lantzen dugun Hizkuntza aniztasuna eta iraunkortasuna egitasmoari esker bideratuko da. Liburuaren lehen bertsioa ingelesezko, gaztelaniazko eta frantsesezko lanekin osatuko da. Dagoeneko nazioarteko 17 adituren idatz konpromisoa jaso da. Argitalpena 2019an plazaratuko da. Aurrera begira euskarazko itzulpena aurreikusten da hartarako dirulaguntza lortuz gero.

### **iv. Hizkuntza gutxituak eta hizkuntza aniztasuna proiektua. Azkue Fundazioa**

Azkue Fundazioaren laguntzari esker, proiektu honen helburua munduko eta Euskal Herriko hizkuntza aniztasunari buruzko informazioa zabaltzea da. Proiektuaren eremuan, Katedrak mintegiak eta jardunaldiak antolatzen ditu, ekitaldi horietara kanpoko adituak ere gonbidatuz. Horrez gain, Nazioarteko Ama Hizkuntzaren Eguna dela eta, urtero topaketa bat antolatzen dugu Azkue Fundazioaren egoitzan. 2018an **“17+1 GHI Mundua eraldatzeko”** erakusketa antolatu da. Bestalde, Azkue Fundazioaren webgunean, Katedrak elikatzen duen atal bat dago. Bertan, munduan gertatzen diren hizkuntza aniztasunari eta hizkuntza gutxituei buruzko berri interesgarriak kontatzen ditugu euskaraz eta gaztelaniaz. (Berri horiek Azkue Fundazioaren eta Katedraren sare sozialetan ere zabaltzen dira).

**v. Hizkuntzaren Irakaskuntza, Jabekuntza, eta Erabilerak. Euskara, erdara, elebitasuna eta eleaniztasuna (IT983-16) (2016-2019)**

Eusko Jaurlaritzak finantzatzen duen ikertalde egonkortu honetan katedrako hainbat kidek hartzen dute parte katedraren beste ardatz nagusia den hezkuntza eleanitza eta eleaniztasunaren inguruko ikerketa egiten eta ezagutzaren zabalkunde

**vi. Oihaneder Euskararen Etxeak antolatutako Hitz Adina Mintzo hizkuntza gutxituak ezagutzeko zikloa eta HIGA! 2.topaketa**

Katedrako kide den Beñat Garaio, Oihaneder Euskararen Etxeak duela hiru urtez geroztik antolatzen duen Hitz Adina Mintzo hizkuntza gutxituak ezagutzeko zikloan laguntzaile gisa aritu da. Ekimen honetan hizkuntza gutxitu bateko hiztun edo aditu bat gonbidatzen da mundu zabalean dauden hizkuntza gutxituetako egoera Euskal Herrira, eta batik bat Gasteizera hurbiltzeko asmotan. 2018 urtean mapuzugun eta maoriera hizkuntzen inguruko ekitaldiak egin dira.

Bestalde, eta Beñat Garaio berak HIGA, 2. Hizkuntza Gutxituetako Hiztun Gazteen Bigarren Topaketa, antolatu du Gasteizen uztailaren 16tik 19ra, arrakasta handiarekin. 30 hizkuntza komunitate ezberdinetako 75 gazte etorri dira Gasteizen aste oso batean zehar egin den topaketan parte hartzera. Katedrak bertan parte hartu du hasierako ekitaldian, eta diru-laguntza eman du itzulpen gastuetarako.

## **3.2. Formakuntza eta Zabalkundea**

### **3.2.1. Emandako ikastaroak**

- **Esti Amorrortu**. “Euskaldun berriak eta euskaldundu direnak. Nola eragin diegu? Zer behar dute?” Helduen Euskalduntze Alfabetatzea aurrera begira. Glotodidaktika VI. Topaketa, UEU, HABE eta Euskaltzaindiak antolatuta, Bilbo. (2018/11/09).
- **Andoni Barreña**, Garabide Elkarteak eta Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultateak antolatutako *IV Hizkuntzak Biziberritzeko Estrategiak Aditu Ikastaroaren* Koordinatzaile Akademikoa (2018, iraila-abendua, 500 ikastorduko formazioa); Aretxabaleta, Euskal Herria.
- **Andoni Barreña**, Garabide Elkarteak eta Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultateak antolatutako *IV Hizkuntzak Biziberritzeko Estrategiak Aditu Ikastaroko*



Hezkuntza Moduluaren arduraduna eta irakaslea (50 ikastordu, 2018); Aretxabaleta, Euskal Herria.

- **Andoni Barreña**, Garabide Elkartek eta Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultateak *antolatutako IV Hizkuntzak Biziberritzeko Estrategiak Aditu Ikastaroko Corpus Moduluaren arduraduna eta irakaslea* (15 ikastordu, 2018); Aretxabaleta, Euskal Herria.

- **Andoni Barreña & Julen Larrañaga**, *Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak eta Teknikak Diplomatura Nasa Komunitatean Aplikatuta* deritzan 120 ikastorduko ikastaroko koordinatzaileak (2018), Tunxiwu-Toribio, Cauca, Kolonbia, 2018.

- **Andoni Barreña**, Adonias Perdomo & Julen Larrañaga, *Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak eta Teknikak Diplomatura Nasa Komunitatean Aplikatuta* deritzan ikastaroko Soziolinguistika moduluko (15 ikastordu) irakasleak, Tunxiwu-Toribio, Cauca, Kolonbia, 2018ko ekaina.

-**Leire Diaz de Gereñu & Ibon Manterola**. “Berbetan, eleketan, mintzatzen irakatsi. Ahozkoaren garrantzia.” (2018-11-10) Helduen Euskalduntze Alfabetatzea aurrera begira Jardunaldiak, Bilbo: azaroak 9-10, UEU

- **Leire Diaz de Gereñu & Ines Garcia Azkoaga**. “Irakasleen uste eta praktikak garapen atipikoa duten ikasleei hizkuntza irakasteko orduan / Creencias y prácticas de los profesores a la hora de enseñar lengua a alumnos con desarrollo atípico”. Bera, irailak 28-29: *Hizkuntzaren garapenaren alderdi soziolinguistikoak haurtzaroan. Ez-ohiko garapenean eskuhartze eta baloraziorako pausoak*, UPV/EHU, Uda ikastaroa.

- **Leire Diaz de Gereñu & Ines Garcia Azkoaga**. “Tailerra: Hizkuntzaren garapen atipikoa eta komunikaziotrebetasunak lantzeko aukerak / Taller: Desarrollo atípico del lenguaje y alternativas para trabajar las capacidades comunicativas”. Bera, irailak 28-29: *Hizkuntzaren garapenaren alderdi soziolinguistikoak haurtzaroan. Ezohiko garapenean eskuhartze eta baloraziorako pausoak*, UPV/EHU, Uda ikastaroa.

- **Beñat Garaio**. Hizkuntza plangintza espezializazioa, Garabidek Mondragon Unibertsitatearekin (HUHEZI) batera antolatutako Hizkuntzak Biziberritzeko Aditu Ikastaroaren baitan kokatzen den ikasgaia.

- **Jone Goirigolzarri**. “Euskal hiztun berriak hiztun aktibo bihurtzeko gakoak. EMUN. Formakuntza Ikastaroa. Arrasate, ekainaren 22.

- **Itziar Idiazabal** “Hizkuntza gutxituen transmisioa” *Aditu Ikastaroa 2018* Hitzaldia. Garabide Elkartea, Aretxabaleta, 08/10/18.

- **Ibon Manterola:** “Hizkuntza ukipena” Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra. Euskal Herriko Unibertsitatea EHU/UPV. 2017-2018 Ikasturtea. Iraupena: 3 ECTS, 30 ordu.
- **Ibon Manterola:** “Social-Discursive Analysis and Language Didactics”. Master Ofiziala: Language Acquisition in Multilingual Contexts. Euskal Herriko Unibertsitatea EHU/UPV. 2017-2018 Ikasturtea. Iraupena: 3 ECTS, 30 ordu.
- **Mikel Mendizabal.** “Taller de escritura y Producción Cultural” Moduloak 1<sup>a</sup> Diplomatura en Estrategias de Revitalización Lingüística (Cauca-Kolonia). 18/06/16-24.
- **Mikel Mendizabal.** “Territorio, Cultura e Identidad: Aproximación a la Tierra del Pueblo Vasco”. Asteburuko saioa Hizkuntza Biziberritzeko Gidaritzari buruzko Aditu Ikastaroan. 17/09/28-30.
- **Mikel Mendizabal.** “Plantas, indígenas y sostenibilidad”. Máster propio en Medio Ambiente y Sostenibilidad. Cátedra UNESCO sobre Desarrollo Sostenible y Educación Ambiental, UPV/EHU. 18/10/29.
- **Ane Ortega.** “Nuevos hablantes de euskera: Identidad lingüística y legitimidad” y “Cooperación lingüística vasco-nasa yuwe: formación de profesores de nasa yuwe a adultos en la comunidad nasa del Cauca colombiano”. Para alumnos de Máster y doctorado. Universidad de Kiel, 24-25 Mayo 2018.
- **Manel Pérez-Caurel** “Lenguas y Desarrollo Sostenible”. UPV/EHUko Ingurumen eta iraunkortasunean berezko Masterra. 2018-2019 ikasturtea, Leioa 2018/10/31. Iraupena: 4 ordu.
- **Belen Uranga:** “Hizkuntza-aniztasuna eta hizkuntza-ekologia”. *Hizkuntza Biziberritzeko gidaritzari buruzko ikastaldi trinkoa*. Antolatzailea: Garabide Elkartea Aretxabaleta.

### 3.2.2. Katedrak dibulgaziorako antolatutako ekitaldiak

- 2030 Agendako erakusketa “Mundua eraldatzeko 17+1 helburu”. Erakusketak 18 irudi ditu Garapen Iraunkorreko Helburuekin. Lehenengo 17 irudiak Euskal Herriko UNESCO Etxeak eskainitako material grafikoa da eta Donostiako IES Usandizagako ikasleek sortu zituzten lehiaketa batean. 2019an Azkue Fundazioko Euskararen Etxean egon zen otsailaren 21etik apirilaren 7ra; Elorrion apirilaren 9tik 30era; Leioan azaroaren 5etik 16ra (erakusketa honetan visita gidatuak egiteko aukera eskaini zen euskaraz, gaztelaniaz zein ingelesez hezkuntza zentroetara zein publiko orokorrera); azkenik Berrizen egon zen abenduaren 3tik 21era.

- Uztailaren 2tik 3ra: UEU udako ikastaroa “Procesos de revitalización lingüística y alfabetización de adultos”. Katedrako Arkaitz Zarraga kideak koorditatuta, eta Andoni Barreña, Ane Ortega eta Itziar Idiazabalen parte hartzearekin irakasle lana egiten. Kurtsoa Baionan (Euskal Herri frantsesa) egin zen Garabide eta UEU elkarteen laguntzarekin UEUko udako ikastaroen inguruan.
- Uztailaren 16tik 19ra: UPV/EHUko udako ikastaroa “HIGA! Hizkuntza Gutxituetako Hiztun Gazteen II.topaketa”. Vitoria-Gasteizko udalaren laguntzarekin antolatuta. Katedrako Beñat Garaio kideak koordinatuta eta Katedraren kolaborazioarekin.

### 3.2.3. Katedraren parte hartzea beste ekitaldi batzuetan

- Aldekoa, A., Idiazabal, I. & Manterola, I. “The development of oral multilingual skills by means of a trilingual didactic sequence” komunikazioa. *Bilingualism and interculturality: challenges, limits and solutions* kongresua. UNED, Madrid, 2018/11/29-30.
- Aldekoa, A. & Manterola, I. “The Development of Trilingual Oral Expository Skills from the Perspective of an Integrated Teaching of Languages” komunikazioa. *Language, Identity and Education in Multilingual Contexts* kongresua. Dublin, 2018/02/01.
- Almgren, M. & Manterola, I. “Le basque à l’école: passé, présent et futur” komunikazioa. *L’enseignement-apprentissage et l’aménagement des langues. En hommage à Marielle RISPAIL* kongresua. Ougda, Nador, 2018/12/13.
- Amorrortu, E., Goirigolzarri, J. & Ortega, A. “El proceso de muda en jóvenes universitarios del Gran Bilbao: primera aproximación”. *CILX2018-XIII Congreso Internacional de Lingüística* kongresua. Xeral, Universidade de Vigo, 2018/06/13-15.
- Amorrortu, E., Goirigolzarri, J., Ortega, A. & Beitia, I. “Euskararen aldeko muda Bilbo Handiko unibertsitateko ikasleen artean. Lehen hurbilpena”. *XI Congreso Vasco de Sociología y Ciencia Política* kongresua, Bilbo, 2018/09/6-7.
- Barnes, J. & Almgren, M. “Reports from a trainee teacher perspective in multilingual education”. *11th International Conference on Multilingualism and Third Language Acquisition* kongresua. Lisboa, Portugal, 2018/09/13-15.
- Bengoetxea, O., Garcia-Azkoaga, I. & Diaz de Gereñu, L. “La mise en oeuvre de compétences communicatives pour l’éducation immersive bilingue: apprentissage de la langue orale dans des matières non linguistiques”. *7èmes rencontres de l’ISLRF (Institut Supérieur des Langues de la République Française)* kongresua. Quimper, 2018/03/23-24.

- Casenave, J. & Idiazabal, I. “Transmettre la culture basque écrite dans la formation des enseignants. Séquences didactiques sur des textes de la tradition littéraire basque en situation plurilingue et “pluri-lettrée”. *Colloque ISLRF - 2018 kongresua*. Quimper, 2018/03/23-24.
- Diaz de Gereñu, L. & Garcia-Azkoaga, I. “Función metanarrativa de la repetición en el lenguaje oral: entre texto y discurso”. *36º Congreso Internacional de AESLA: «Lingüística aplicada y transferencia del conocimiento: empleabilidad, internacionalización y retos sociales» kongresua*. Cadiz, 2018/04/19-21.
- Diaz de Gereñu, L. & Manterola, I. “Berbetan, eleketan, mintzatzen irakatsi. Ahozkoaren garrantzia” hitzaldi gonbidatua. *Helduen Euskalduntze Alfabetatzea aurrera begira jardunaldiak kongresua*. Bilbo, 2018/11/09.
- Diaz de Gereñu, L. & Santamaria, I. “Komunitatea, euskara biziberritzeko ardatza erdal eremuko ikastetxe batean: Gasteizko Ramon Bajoko ekimena”. *Euskararen Transmisioa, VIII. mintegia, “...eta kitto!” Elkarte*. Eibar, 2018/03/7.
- Diaz de Gereñu, L. “Euskara ardatz eta ikasle eleaniztunak”. *Irakasleen prestakuntza jarduerak 2017- 2018, Berritzegunea, Eusko Jaurlaritza*. Vitoria-Gasteiz, 2018/02/6.
- Diaz de Gereñu, L. “Euskara biziberritzea aniztasunean eta eskolaren bitartez”. *Eibarren Eskola Maparen inguruko Foro Irekia, Eibarko Bildu*. Eibar, 2018/05/30.
- Diaz de Gereñu, L., Manterola, I. & Algrem, M. “Vers une didactique intégrée des langues dans l’enseignement immersif au Pays Basque? Analyse de manuels d’enseignement de basque, espagnol et anglais au Secondaire” komunikazioa. *7èmes rencontres de l’ISLRF (Institut Supérieur des Langues de la République Française). L’immersion: 40 ans d’expérience pour l’avenir de nos langues*. ISLRF, Quimper, 2018/03/23-24.
- Garaio, B. & Pedruzo, A. “Euskara eta Araba, indartuz doan errima”. *EuskarAbentura espedizioko hitzaldi soziolinguistikoen baitan*. Gasteiz, 2018/07/15.
- Garaio, B. “‘Nola bizi duzu zuk euskara?’ mahai-inguruko dinamizatzailea”, *HIGA: Hizkuntza Gutxietako Hiztun Gazteen 2. Topaketa*. Gasteiz, 2018/07/16-19.
- Garaio, B. “Euskararekiko jarrerak D ereduko eskola-komunitate anitz eta erdalduetan: hizkuntza-jarrerak aztertzeko galdetegi pilotoa Gasteizko Ramón Bajo eskolan”. *MDE doktorego eskolako doktoregaien mintegia*. Gasteiz, 2018/05/16.
- Garaio, B. “HIGA: Hizkuntza Gutxietako Hiztun Gazteen 2. Topaketa”. *Gazteak eta Euskara jardunaldiak*. Donostia, 2018/11/22-23.
- Garaio, B. “Identificando las bases actitudinales para un multilingüismo ‘a la vasca’: entrevistas en profundidad entre los miembros de una comunidad educativa

diversa”. *Segundo Congreso Internacional de Lengua y Migración* kongresua. Alcalá de Henares, 2018/11/29-30.

- Garaio, B. “Kongresuko amaiera hitzaldia”. *HIGA: Hizkuntza Gutxituetako Hiztun Gazteen 2. Topaketa*. Gasteiz, 2018/07/16-19.

- Garaio, B. “Kongresuko dinamizatzaile ardura”, *Eusko Ikaskuntzaren E5 egitasmoaren 3. mintegia*. Gasteiz, 2018/06/8.

- Garaio, B. “Kongresuko dinamizatzaile ardura”, *Eusko Ikaskuntzaren E5 egitasmoaren 2. mintegia*. Gasteiz, 2018/02/24.

- Garaio, B. “Kongresuko inaugurazio hitzaldia”, *HIGA: Hizkuntza Gutxituetako Hiztun Gazteen 2. Topaketa*, Gasteiz, 2018/07/16-19.

- Garaio, B. “Round-table on language strategies”. *The view from the multilingual child* kongresua. Wuppertal (Alemania), 2018/10/8-10.

- Garcia-Azkoaga, I. & Diaz de Gereñu, L. “Hizkuntzaren tratamendua hezkuntza sistema ez unibertsitarioan”. *Eusko Legebiltzarra Hezkuntza Batzordeko Mahairako Agerraldia*. Vitoria-Gasteiz, 2018/03/5.

- Garcia-Azkoaga, I. & Zalbidea, U. “¿Qué capacidades lingüísticas y comunicativas se pueden trabajar en la asignatura de matemáticas?”. *36º Congreso Internacional de AESLA*. Cádiz, 2018/04/19-21.

- Garcia-Azkoaga, I. “Secuencias didácticas y géneros textuales en el aprendizaje de la lengua de especialidad”. *XII Simposio Internacional de la Sociedad Española de Didáctica de la Lengua y de la Literatura* kongresua. Cracovia (Polonia), 2018/03/25-28.

- Garcia-Ruiz, M. “Familiako Hizkuntza Politika”, *MDE doktorego eskolako doktoregaien mintegia*. Gasteiz, 2018/05/16.

- Garcia-Ruiz, M. “Family Language Policy”, *3. euskal ikasketetako doktoregaien ikerketa-jardunaldia*. Baiona, 2018/06/11.

- Garcia-Ruiz, M. “Round-table on language strategies”. *The view from the multilingual child* kongresua. Wuppertal (Alemania), 2018/10/8-10.

- Goirigolzarri, J. & Rodriguez, T. “Bizkaia maite”. *Euskarabentura*. Markina, 2018/07/28.

- Goirigolzarri, J. “Gazteria eta hizkuntza”. *Euskararen Aholku Batzordea. Gazteen Unibertsoa eta Euskara Batzorde-atal Berezia. Gaztea eta euskara. Gauzatutako praktiken gaineko gogoetarako jardunaldiak*. Donostia, 2018/11/22-23.

- Idiazabal, I. “El tratamiento de las lenguas en la educación”. *Comisión especial para la elaboración de una nueva Ley Foral del euskera*. Parlamento de Navarra, 2018/05/16.

- **Idiazabal, I.** “Ingeniaritza didaktikoa irakaskuntza eleanitzerako”. *Multilingüismo: Nuestras lenguas, otras lenguas* kongresua. Pamplona-Iruña, 2018/04/21.
- **Idiazabal, I.** “La escuela y la revitalización del euskera”. *Ciclo de conferencias organizado por el GELA de la Universidad de Barcelona*. Barcelona, 2018/10/19.
- **Idiazabal, I., Garcia-Azkoaga, I. & Diaz de Gereñu, L.** “La recette de cuisine: les genres de texte comme outil pour l’analyse de l’apprentissage d’une L2”, *Colloque ISLRF - 2018*. Quimper, 2018/03/23-24.
- **Manterola, I.** “Basque-medium education and its contribution to the revitalization of the language: current challenges” hitzaldi gonbidatua. *Seminario del Baskische Lektorat del Etxepare Institutua, con la colaboración del Etxepare-Instituta y del Instituts für Romanische Sprachen del Goethe-Universität*. Frankfurt, 2018/06/21.
- **Manterola, I.** “El rol de la escuela en euskera en las políticas lingüísticas familiares para revitalizar la lengua: Ejemplos de la Comunidad Autónoma Vasca y Navarra” hitzaldi gonbidatua. *Colloquio del Romanisches Seminar der Christian-Albrechts-Universität zu Kiel*. Kiel, 2018/06/20.
- **Manterola, I.** “Hizkuntzak ikasteko jarrera eta motibazioak”. *Etxepare Institutua: Atzerriko unibertsitateetan eta goi mailako zentroetan euskara irakasteko prestakuntza ikastaroa*. Donostia, 2018/10/05.
- **Manterola, I., Diaz de Gereñu, L. & Garcia-Azkoaga, I.** “The contribution of text genre-based classroom activities to the development and evaluation of multilingual competence” komunikazioa. *Language, Identity and Education in Multilingual Contexts* kongresua. Dublin, 2018/02/01.
- **Ortega, A. & Amorrortu, A.** “Euskal hiztun berri gazteak: esperientziak, praktikak eta identitateak profil ezberdinetan.” *Ulibarriko Eskola hiztun bila XXII Jardunaldiak*. Gasteiz, 2018/10/9-10.
- **Ortega, A.** “40 años de revitalización del euskera: logros y retos. ¿Qué hemos aprendido?”. *Coloquio internacional sobre Metodologías para la investigación de la cultura del plurilingüismo regional*. Universidad de Kiel, 2018/09/20-22.
- **Ortega, A.** “Forty years of Basque-medium Education: New profiles of Basque Speakers”. *Conference Language, Identity and Education in Multilingual Contexts (LIEMC18)* kongresua. Marino Institute of Education, University of Dublin, Dublin, 2018/02/1-3.
- **Ortega, A.** “La situación sociolingüística de las lenguas y el papel de la educación”. Aspectos sociolingüísticos del desarrollo del lenguaje y diferentes terapias del lenguaje en el desarrollo atípico en la infancia. *UPNA-Universidad Pública de Navarra udako ikastaroa*. Lesaka, 2018/09/28-29.

- Ortega, A. “Zer dugu eta zer beharko genuke: Materialgintza”. *Helduen Euskalduntze Alfabetatzea aurrera begira. UEUko Glotodidaktikako VI. Topaketa*. Bilbao, 2018/11/9-10.

### 3.3. Katedraren presentzia hedabideetan

2018an Katedraren presentzia hedabideetan idatzizko prentsan zentratu da. Katedrako koordinatzaile zen Itziar Idiazabali egin zioten elkarrizketa bat Gipuzkoako Diario de Noticiasen 2018ko ama hizkuntzaren nazioarteko urtea zela eta, geroago, maiatzean, Nafarroako Parlamentuan egindako interbentzio baten arira, beste bi elkarrizketa egin zituen Garan eta Nafarroako Diario de Noticiasen.

Irratian interbentzio bat egon zen Bizkaia Irratian Itziarren eskutik hizkuntza aniztasunari buruz. Baita ere kontuan hartuta Katedra Euskal Herriko UNESCO Sarearen kide dela, ONUren 2030 Agendako GIH zabaltzeko Euskal Herrian.

ONUren 2030 Agenda eta hizkuntza aniztasunari buruzko “17+1 helburu mundua eraldatzeko” erakusketa egin zen Leioan, Elorrion, eta Berrizen. Honen berri hainbat hedabide digitaletan agertu zen bai erakusketari buruz, zein Katedra eta honen edukiei buruz. Hedabide horien artean Anboto aldizkaria.

Aipatutakoaz gain, Beñat Garaio kidearen hainbat elkarrizketa aipatu beharra dago “HIGA! Hizkuntza Gutxituetako Hiztun Gazteen II.topaketa” ekitaldiaren arrazoiarekin. Ekitaldi horretan katedrak ere parte hartu zuen antolakuntzan eta komite akademikoan besteak beste.

## 4. ARGITALPENAK

---

Almgren, M. & Idiazabal, I. (2018). "Immersion et submersion, deux modèles opposés pour enseigner en langue seconde" in Le Coadic, R. (Dir.): *Francis Favereau. Melanges au passeur de mémoire*. Rennes: Skol Vreizh, 25-50.

Ceberio, K., Aduriz, I., Diaz de Ilarraza, A. & Garcia-Azkoaga, I. (2018). "Coreferential Relations in Basque: The Annotation Process". *Journal of Psycholinguistic Research*, Volume 47, Issue 2, 325-342.

Garaio, B. (2018). "HIGA Hizkuntza Gutxituetako Hiztun Gazteen 2. Topaketak", *IVAP-eko Administrazioa Euskaraz*, 102 zenbakia, 19. Orr. <https://www.euskadi.net/r61-vedadmeu/eu/t59aWar/t59aMostrarFicheroServlet?t59aldRevista=1&R01HNoPortal=true&t59aTipoEjemplar=R&t59aNumEjemplar=102>

Garaio, B. (2018). "Argantz on ikastola ez da ohiko ikastola", *ARGIA aldizkaria*, 2018ko ekainak 10ean. <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2602/argantz-on-ikastola-ez-da-ohiko-ikastola>.

Garaio, B. (2018). "Ondarroako kresala sentitzen da Gasteizko muinoan", *ARGIA aldizkaria*, 2018ko maiatzak 8an. <https://www.argia.eus/albiste/ondarroako-kresala-sentitzen-da-gasteizko-muinoan>.

Garaio, B. (2018). "La croada judicial d'Urquijote contra l'euskera: "enemic" d'una sola cara?", *Treballs de Sociolingüística Catalana*, 28, 11-31. ISSN-e: 2013-9136. CIRC (Ciencias Sociales; Ciencias Humanas) [C].

Garaio, B. & Penman, R.F. (2018). "Euskal lankidetzak Hego Amerikako hizkuntzen biziberritzean eragina du", *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 106, 197-226. ISSN: 1130-8435

Garaio, B. (2018). "Learning from each other in language revitalization: a chronicle of two new different initiatives on linguistic diversity in Gasteiz, Basque Country" *Pannoniana*, vol. II, no. I-II (2018): 7-31.



- Garcia-Azkoaga, I. (2018). "Cohesión nominal en la narración escrita compuesta por alumnos euskaldunes", *Revista Signos. Estudios de Lingüística*, volumen 51, nº 97, 134-152.
- Idiazabal, I. & Casenave, J. (2018). "La formation des enseignants de basque du système immersif. Aborder l'approche communicative pour l'enseignement bilingue par immersion à travers des séquences didactiques basées sur les genres textuels". In Zahir MEKSEM & Bouchra EL BARKANI (eds.): *Hommage à Marielle Rispaïl. Éditions Modulaires Européennes (E.M.E)*.
- Landabidea, X., Goirigolzarri, J. & Manterola, I. (2018). "Euskara biziberritzeko ahaleginak: nondik norako berriak", *Hik Hasi 228 (2018ko maiatza)*, 32-34.
- Manterola, I. (2018). "Euskararen biziberritzea edota euskaraz garatu nahi duen komunitatea?" *euskonews*, 734. 2018-10-24 / 2018-12-02 <http://www.euskonews.eus/zbk/734/euskararen-biziberritzea-edota-euskaraz-garatu-nahi-duen-komunitatea/ar-0734001004E/>
- Manterola, I. (2018). "Euskararen erabilera irakasteko objektu eta baliabide didaktikoak hiztun komunitatea garatzeko aktibo gisa", *Hermes*, 60, 64-67.
- Ortega, A. & Anakabe, M.J. (2018). "Integration of languages and areas in global projects: a proposal integrating Social and Natural Science, Basque, Spanish and English". *Babylonia. The Journal of Language Teaching and Learning. Special Issue on Integrating subject and language learning: Re-thinking CLIL*. 2/2018, 44-48. ISSN. 1420-0007.
- Ortega, A., Beaven, T., Garrido, C., & Scrivener, S. (2018). *¡Exacto! A Practical Guide to Spanish Grammar* (3rd edn.). London: Routledge. ISBN 10: 0415785065. ISBN-13: 978-0415785068. (Ediciones anteriores: 2009 y 2002.)
- Puidgevall, M., Walsh, J., Amorrortu, E. & Ortega, A (2018). "I'll be one of them': Linguistic mudes and new speakers in three minority language contexts." *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 4(3), 1-13.

**Aeby Daghé, S. & Almgren, M. (2018).** “Le loup entre dans la cage... . Le point sur les apports de la dictée à l’adulte à la production de texte avec de jeunes élèves.” *forumlecture.ch*, 1 / 2018

**Urla, J., Amorrortu, E., Ortega, A. & Goirigolzarri, J. (2018).** “Basque Standardization and the New Speaker: Political Praxis and the Shifting Dynamics of Authority and Value” in P.M.J. Lane, J. Costa & H. de Korne (eds.): *Standardizing Minority Languages: Competing Ideologies of Authority and Authenticity in the Global Periphery*. New York & London: Routledge. Pp. 24-46. ISBN. 9781138125124.